

noaua

**GuraSOsen manifestuak
15.079 sinadura
batu ditu**

**Maria Jesus Etxeberria
argazkilariarekin
solasean**

**Ibilgailu Klasikoen
Topaketa**



Kayak jaitsierak antolatu dituzte uda honetarako

**Errioa barrutik
ezagutzeko aukera aparta**

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala orain ere noaua.eus web orrian



http://www.

Etxebizitzak, garajeak, motorra, lanpostuak, trukean... Zure oharra Internet bidez igo eta kontsulta dezakezu

www.noaua.eus

MERKATU TXIKIA

noaua

ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN

Begiraleekin antolatutako jarduerak

ONTZIEKIN ALORRETA URTE OSOAN ZEHAR

Usurbilgo Txokoalde auzotik Orioraino, 2,5 orduko jaitsiera kaiakera.

657794677
info@begi-bistan.com

Kaixo Noauakide!

2016ko kuota kobraketa, **uztailaren 15ean** hasiko dugula jakinarazi nahi dizuegu. Kuota, pasa den urtean bezala, 40€takoa izango da. Beraz, **40€ kobratuko zaizue** (ERRENTA AITORPENEAN HOBARI) datozen egunotan. Kutxa bidez kobraketa egiteko baime-na eman badiguzu, bide hori erabiliko dugu aurren ere.

BAZKIDETZA

Ordainketa eskuz egiten duzuenok gure kontu korrontean sartu beharko duzue dirua edo gure egoitzara ekarri.

Hau da gure kontu korronteko zenbakia:

Rural Kutxa: 3008 0259 11 3086496928

Besarkada bat eta hurrengo arte,

NOAUA! KULTUR ELKARTEA

noaua

OHARRA: Errenta aitortpenaren hobaria izateko, gurekin harremanetan jarri nortasun agiriaren datuak baieztatzeke.

943 36 03 21 elkarte@noaua.eus · bordaberri 3, behea USURBIL

Albiste iruditzen

Bristolen ere, Usurbil "eredugarri"

2009an herri honetako hondakinen kudeaketa irauli zuen eguneroko ohitura aldaketa txiki batek, eredu-garritasunaren mapan kokatu zuen udal-erri hau. Inguruko herrietatik bakarrik ez, urrutia gotik, atzeritik ere begira ditugu. Esaterako, Erresuma Batuko Bristol aldetik.

Hiriburu honetako hondakinak kudeatzen dituen enpresako ordezkari Lucie Pecinkova gure artean izan zen aurreko astean, atez ateko bilketa ezagutzen. Usurbilgo Udalaren eskutik, sistema honen inguruko argibideak jaso zituen. Eta jasotako informazioarekin eta ikusitakoarekin harrিতuta geratu da Lucie.

2015ean Hiriburu Berde izendatua, Zero Zabor hiriburu bilakatzeko bidea jorratzen dabiltza Bristolen. 500.000 biztanleko hiriburuan, sistema mistoa dute indarrean; atez atekoa etxe txikietan, solairu askokoetan edukiontziena. Atez atekoa hedatzera jo nahi dute, oraindik orain, asko jota %40ko birziklapen tasara



Aurreko astean Bristolgo hondakinak kudeatzen dituen enpresako ordezkaria izan zen Usurbilen. 500.000 biztanleko hirian, sistema mistoa dute indarrean. Atez atekoa etxe txikietan, edukiontziena solairu askotako etxeetan.

heltzen baitira.

Europak 2020rako ezarri duen %65eko birziklatze tasara heldu nahi dute eta horretarako, European zehar dauden esperientziak ezagutzen ari da Lucie. Es-

perientzia eredugarrien artean kokatu du Usurbilgoa. Eta hemengo esperientziak frogatzen du bere ustez, eurek ere helburu horretara heldu daitezkeela atez atekoa hedatuz.

Laburrean

Jai Batzordearen bilera

Datorren astelehenerako, Santixabel Jai Batzordearen bilera deitu dute. 18:00etan Potxoenean. Aditzera eman dutenez, ego-kia litzateke egun horretarako diru-kon-tuak zurrizteko agiriak eramatea.

Azken NOAUA!, hilaren 22an

Uztailaren 22an argitaratuko dugu oporraldi aurreko azken astekaria. Zorion agur edo oharririk baldin baduzue, uztailaren 18a baino lehen ekarri NOAUA!ra edo emailaz bidali: erredakzioa@noaua.eus

58koen kinto bazkaria

Irailaren 10ean bilduko dira, 14:00etan Antxetan. Aurrez 50 euroko ordainketa egin behar da (irailaren 5a arte); kontu zenbaki honetan: 3035 0140 36 1400030013 (Euskadiko Kutxa).

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatorra:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

María Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

Aurrez aurre

Jaien erdigunean izan dugu. Guztion begi bistan, Anje Duhalde eta Niko Etxarten kontzertuetan fokuek argizatzen zutenean, pilota txapelketako finaleran pilotariak aurrera atzera ibili zirenean, aurrez aurre soka-dantza ekitaldian.

Ez da itxurosoa geratuko ziurrenik, horma batean salaketa bat plazaratzeko pintada bat egitea. Ezta ospakizunetan garela, jaietan etenik gabe pintada batekin elkarbizi beharra izatea. Are gehiago, herriko lantegi bati buruz ari garenean.

Argi denez, horrelako hitz margoturik ez agertzea izango zen onena. Ez jaietan, ezta urteko beste edozein egun eta lekutan ere. Baina

hor dago. Pintadak mezu gorrak jasotzen du terminologia mailan. Honez gero, jaiotan behin baino gehiagotan irakurriko zenuten; "Ucinek hiltzen gaittu".

Hitzen azaleko esanahira mugatuta, zinez bortitza da frontoiko ezker paretean idatzitua. Baina era berean ez dira hitz hutsalak. Pintadari zoritxarrez ez zaio mamirik falta. Pintada egiteko egileek aukeratu duten unea eta lekuak, jaien erdigunean jarri du, urte luzez hainbat herritarren kezka iturri izan den Atxegalde ondoko lantegiak (ez langileek) hainbat uneetan jarduteko moduak eragin duen kezka eta haserrea.

Pintadak gogorarazi behar izan digu, iazko abenduko iluntze batean urrutirago joan

gabe, herria bereganatu zuen ke laino kutsakor batek kalean hitz egite hutsak ezdarri eta begietan sortu zituen eragozpenak. Edo apirilean izandako ke-isurian, Udalak ireki behar izan zuen inzidentzia. Denbora luzez egin izan diren mobilizazioak gogorarazi dizkigu baita. Edota zenbatetan sartu den etxe barruraino, sudur zuloetaraino arnasezina zen usaina. Udalak bere aldetik, legealdi bat baino gehiagotan ke kutsakorra isurtzea eragozteko eginiko ahaleginak ere oroitarazten ditu pintadak. Lantegia zenbait neurri zuzentzaile hartzera behartu zuten. Herritarrekin egin diren batzarrak ere gogorarazten ditu pintadak. Eta herritarrak aipatuta, gai honek urte luzez sortu duen kezka, ezinego-

na eta haserrea, arazoak konpontzeke segitzen duela ikusita.

Zubieta gainean eraiki nahi diguten erraustegiaren mehatxupean bizi garen honetan, entzun izan da, etxe ondoan badugula jada, ke toxikoa aireratu eta zenbait uneetan giroa arnasezina egiten segi izan duen tximiniarik.

Eta horren aurrean, lantegi barruan zein kanpoan, herri honek arnasa lasai hartzeko eskubidea duela, kexatzen edo mobilizatzen segi beharrik izan gabe. Nahiz oraingoz dirudienez, ezinezkoa den. Onena inor halako pintadarik egiteko beharrean ez aurkitzea litzateke. Ia berriz halako "margolanik" ikusten ez dugun, zerbait aldatu den seinalea izan daiteke.

Imanol Ubeda | Idoia Torregerai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | **Aritz Gorriti**

Irailaren 5era arte, Agerialde pareko bidea itxita

Irailaren 5era arte egongo da itxita, Agerialde pareko Alperro-Buru kalearen zatia, urbanizazio lanak egiten ari dira eta. Euri uren eta ur zikinaren sarea erdibituko dute. Lurzorua eraberritu eta irailetik aurrera oinezkoek izango dute lehentasuna. Ikasleen jolasgaraietan edo ikastetxetik sartu eta irteteko uneetan kalea autoen joan etorrirako itxita geratuko da. Oinezkoentzako segurtasuna indartu nahi dute baita, patiotik beheerako bidean ere. Lanak iraileko ikasturte berria abiatzerako amaituko dituzte.



Lurzorua eraberritzen ari dira. Irailetik aurrera oinezkoek izango dute lehentasuna.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: uztailak 22. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztailak 18.

Oria biziberritzeko, ekarpenak egiteko garaia

Usurbilgo Udalak abian duen “Errioa bizi!” egitasmoaren baitan, parte hartze tailerra antolatu du datorren astearterako, uz-tailaren 19rako 19:00etan Potxoenean.

“Jakingo duzueenez, prozesu honen azken helburua Oria ibairako Ekintza Plana garatzea izango litzateke, eta prozesu honetan dagoeneko inkestak eta elkarrizketak egin dira. Asteartean berriz, proposamenak helarazteko tailerra egingo da. Bertan, ekintza konkretuen ekarpenak jaso nahiko genituzke ikuspegi zabal batetik begiratuta (paisajistikoa, naturala, ingurugiroari lotutakoa, ...). Ekarpene horien inguruan hitz egin eta etorkizunera begirako Ekintza Plana landuko da. Nahiz eta urruti geratzen dela dirudien, orain da garaia ekintza horiek proposatzeko, beraz garrantzitsua deritzogu jendearen partehartzea”, nabarmendu dute Udaletik.



Orain da Oria ibaiaren inguruan “ekintzak proposatzeko garaia, beraz garrantzitsua deritzogu jendearen partehartzea”.

ERRIOA BIZI!

“Partehartze tailerra antolatu dute datorren astearterako: 19:00etan Potxoenean”

Paisaiaren kalitatea, nabarmen murriztua

Parte hartze prozesua udaberriaz gozotik martxan du Uda-

lak. Gai honi buruzko inkestak bat betetzeko aukera izan du herritar orok azken aldian. Aurretik ordea, eragile multzo batekin elkarrizketa erronda bat egin zuten egitasmo honetako sustatzaileek. Errioa eta inguruak biziberritzeari buruz zuten ikuspegia jaso nahi zuten. Paisaiari buruz galdetu zieten, ia urteotan aldaketarik sumatu ote duten. Elkarrizketatu guztiek baietz zioten.

Paisaiaren kalitatea nabarmen murriztu dela “eta ondare kulturala, arkitektonikoa, etnografikoa eta inmateriala ikaragarri galdu dela”. Industrializazioak ekarritako bizimodu aldaketa nabarmentzen dute. Aldiz bizi-kalitateak hobera egin duela diote, nahiz azken urteotako krisialdiak kolokan jarri duen.

Zaindu beharrekoak

Herri honek baditu hainbat berezitasun, zaindu beharrekoak, eragileon ustez. Usurbilgo paisairi originaltasuna ematen diote, “Oria ibaiak berak eta honen ondoan zabaltzen den lautadak, meandroek, “mariskoek”, txitxardinek... Bereizteko ezaugarrien artean ere eragileek zera aipatzen edota azpimarratzen dute: herri gune banaketa, Usurbilgo kaxkoa, landa eremu zabalak, bertan ekoizten diren produktuak, ondo kontserbatuak dauden esparruak, Andatza, beste mendiak...”.

Erraustegia, mehatxu

Inguruotako paisaiarako mehatxutzat jotzen dute gehienek, hogeitak elkarriketatutik hamabostek, “fabriken kutsadura, plan orokorraren gehiegizko dimentsionamendua, Zubietako errauskailua, zaborra, mendiko motorrekiko zaletasuna, baserriaren krisia, laborantza trinkoa, monolaborantza, azpiegitura batzuk... Halere gehien errepikatzen direnak: errauskailua eta industriaren kutsadura dira”.

Generoaren ikuspegia ere txertatu zuten galdetegian. Emakumeentzat zailtasun edo arazoak eragin zitzaizketen zer nolako paisaiak ditugun gal-

detzen zuten. “Gizarte matxista batean bizi garela onartzen dute, horrek dakarrenarekin: gehienetan ez da emakumeen beharren arabera planifikatzen edo kudeatzen”, jasotzen du galdetegiko emaitzen laburpenak.

Begiratokiak ipini

Non eragina bada eragileontzat. Batez ere degradatutzat jotzen dituzten industriaguneetan. Errio ertzeetako esparruak berreskuratu eta naturalizatzeko beharra nabarmendu dute. Oria inguruaz gozatzeko paisaia-begiratokiak jartzea proposatzen dute. “Mendia eta

ibaiaren arteko lotura edota korridore ekologikoak ezarri”, hori ere eskatu dute elkarrizketatuek. Ibai ertzei dagokienean, inguru hau herri eta auzoekin lotuko duen bidegorria eraikitzea, bertako espezieak bultzatu eta birlandatzea, eta kanpokoak desagerraraztea. Eremuotan gainera, “nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako jarduerak bultzatu eta mantentzea ere galdegiten dute”.

N-634 errepedearen “inpektuak arintzeko neurriak jartzea” ere eskatu dute. Bideok ezkutatzeko “ondoan pantaila begetalak eta bisualak ezarri” eta bide ondoetan dagoen

landaredia moztu edo bere neurrian mantendu eta ikus dadila.

Emaitzak, sarean

Aurrera begira, halako parte hartze prozesuak beharrezkotzat jotzen dituzte, herritarrek gaiotan duten iritzia kontuan hartzea ezinbestekoa dela diote.

Lehen faseko emaitzen laburpena, usurbilgo.us udal web orrialdean sartu eta “Errioa bizi!” izeneko loturan klikatuta irakur dezakezue, egitasmo honi buruzko gainerako informazioa ere jaso daiteke bertan.

15.079 sinadura, GuraSOSen manifestuaren alde



Jasotako sinadurak gehiago diren arren, gaurkoz, 15.079 sinadura erregistratu dituzte Lasarte-Oriako notaritzan.

Horiek dira GuraSOSek Lasarte-Oriako notaritzan erregistratu dituenak. Bertan “gordailutu dira, haien eduki, kopuru eta errealitateaz akta fede-emai-lea jasoaz; 2016. zenbakiko Protokoloan gorde dira” berri eman du guraso taldeak.

“Erraustegiaren asmoa alde batera uztea eskatzen dugu”

Erraustegia geratu eta hondakinen arazoari, guztion osasuna eta ingurumena arriskuan jarri gabe, irtenbide adostu bat ematea eskatzen duen manifesturako bildutako atxikimenduak Foru Aldundi-

ra bideratuko dituzte, “zera eskatzeko: osasuna guztiz bermatuta ez dagoelako, eta prebentzio eta babes printzipioetan oinarrituz, erraustegiaren asmoa alde batera uztea eskatzen dugu!”.

Informazio gehiago: gurasos.org

‘Sagarrondotik Sagardora’ zikloa

Aurreko larunbatean, uztailearen 9an egitekoa zuten “Zuhaitzen udako txertaketa” saioa, uztailearen 23ra atzeratu dute.

Datorren aste amaieran egingo da beraz Alkartasuna Kooperatibak antolaturiko ekitaldia, 09:00-13:00 artean Potxoenean. Josu Osak bideratuko duen hitzordurako izena eman edo informazio gehiago jasotzeko bideok dituzue:

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com

alkartasuna.eus

Azken saioa

Aldaketarik ez bada, neguan hasitako zikloa irailaren 10ean amaituko da. “Sagarra-



Ikastaroko hurrengo hizlaria Josu Osa izango da. Zuhaitzen udako txertaketaz arituko da. Uztailearen 23an, Potxoenean.

ren heldutasun analisiak eta etxean sagardoa egiteko hasitapenak” izeneko saioarekin. Aitor Etxeandiak eta Egoitz Zapiainek bideratuko dute

ekitaldia Potxoenean, irailaren 10ean esan bezala, 09:00-13:00 artean. Aurrez eman beharko da izena, aipatu bideetatik.

Buruntzaldea Zutik-en bilera, Usurbilen

Maiatzaren 29an, Gipuzkoa Zutik-ek Donostian abiatu zuen mugimendua. Orain herrialde osora hedatzen doa. Usurbil, Lasarte, Hernani, Urnieta, Andoain eta Astigarragako 100 lagun baino gehiago bildu ziren uztailearen 5ean Hernanin, Buruntzaldea Zutikek eginiko asanbladan. “Ez dago behetik gora eraikitzen ari garen hau geratuko duenik”, berri eman dute sare sozialen bidez. Astearteroko dinamikari eutsi nahi dio bailara mailarako mugimenduak. Aste batean asanblada egin asmo dute, eta hurrengoan ekitza bat. Asanblada gainera, herriz herri lekuz aldatuko da. Hurrengo, uztailearen 19koa, Usurbilen egingo da, arratsaldeko 19:00etan.

Gipuzkoa Zutik

Facebook: [Gipuzkoa Zutik](https://www.facebook.com/GipuzkoaZutik)

Twitter: [@GipuzkoaZutik](https://twitter.com/GipuzkoaZutik)

Buruntzaldea Zutik

Twitter: [@buruntzazutik](https://twitter.com/buruntzazutik)

Erraustegiaren inguruko ikerketa, alboratua

Erraustegiek osasun eta ingurumenean duten eragina aztertzeko, Gipuzkoako Batzar Nagusietan batzordea osatzea eskatu zuten maiatza amaieran EHBilduk eta Ahal Duguk. Aipatu erakundeak ekainaren 28an egin dako osoko bilkuran ordea, EAJ, PSE eta PP hirukoak duen gehiengo osoa baliatu zuten, bi eragileok eginiko eskaera atzera botatzeko.

EHBilduk eta Ahal Duguk Batzar Nagusietan hartutako erabakia arduragabetzat jo dute.

Erraustegia Erabakia plataformakoak herri galdeketa prestatzen hasi dira

Iraila amaieran erraustegia nahi duten edo ez galdetuko zaie aginagar, usurbildar eta zubietarrei. Espainiako Gobernuak Usurbilgo Udalari antolatzea debekatu ostean, Erraustegia Erabakia bilgunean batutako herritarrek hartu dute galdeketa antolatzeko lekukoa. Aurreko ostiralean egin zuten lehen batzarra eta jada lehen erabakiak hartu zituzten.

Ostiral honetan, Potxoenean

Hurrengo egunetan emango dituzte xehetasun gehiago. Dena den, gauza asko erabakitzeko daude. Eta interesa duenak, bileretan har dezake parte. Ostiral honetarako finkatu dute hurrengo bilkura, 18:30ean Potxoenean.

Kamisetak, 6 eurotan

Laguntza biltzeko ekimen desberdinak abiatu ditu Erraustegia Erabakia herri plataformak. Jaietan kamisetak salgai izan zituz-



Ostiral honetan berriro elkartuko dira. Toki berean, Potxoenean, eta ordu berean: 18:30ean.

ten 6 eurotan. Eskuratu ez baduzue etorri NOAUA!ko egoitzara. 6 euroren truke eskuratu ditzakezue uztailaren 19ra arte. Neurri-takoak dituzue aukeran: Haurrak: 5-6, 7-8. Neskak: S-M, L-XL, XXL. Mutilak: M, L.

Diruz laguntzeko aukera

Kamisetaz gain, kontu zenbaki bat ere ireki dute Laboral Kutxan, nahi duenak diru ekarpenak egin ditzan. Honatx zenbakia: ES 36- 3035 0140 37 1400030079.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa erraustegia eraikitzeko proiektua onartzera doa

Uztailaren 28an esleituko du proiektua, 11:00etarako Foru Aldundiko egoitzan deitu duten bilkuran. “Uztailaren 28an pliegoak onartu nahi ditu, erraustegia martxan jartzeko pauso oso garrantzitsua. Oso tipikoa uda erdian, eztabaida gabe eta inposaketaz”, ohartarazi dute. Uztailaren 28rako prestatzen joa-

teko deia egin dute.

Erraustegiaren Aurkako

Mugimendua: “Adi deialdiei”

“Erraustegiaren aurkako mugimenduak erantzun sendoa emango dugu 11:30ak baino lehenago bertan (Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitzan) izango gara. Prestatu maindireak eta adi deialdiei!”, iragarri dute.

Europar erraustegi gehiago ez eraikitzeko sinadura biltzea

Argazkiko QR kodean duzue link zuzena. Bertan sinatzen duenak, “Europako hiritar moduan”, erraustegi berrien eraikuntza mugatu dezala eskatzen dio Europako Batzordeari. “Errausketak birziklatzearekin lehiatzen du eta badira ebidentziak Europar Batasuneko herrialde askok

hondakinak errausteko gaitasun handiagoa dutela erakusten dutenak. Alternatiba gisara, hondakinak sortzen diren gunetik ahalik eta hurbilen murriztu, birdiseinatu, berrerabili eta birziklatzeko pizgarriak aldatu ditzala eskatzen dugu. Europak 2020rako efizientzia helburuak bete nahi baditu, ez dira eraiki behar erraustegi berriak”.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patri Jateak
- bazkariak EGUNERO
- afariak, asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

talak 36-60
INQUIETUD
JANTZI-DENDA
Nagusia 49, LASARTE-ORIA

Larunbatean, Ibilgailu klasikoaren topaketa eta rally lasaia

Gogoan hartu hizkiok; UMB. Tramite prozesu betearen den herriko talde berria dugu UMB edo Usurbil Motorkluba, garai bateko ibilgailuak dituztenen eta zaletuak elkartuko dituen bilgune berria. Talde izaera lehendik bazuten baina orain klub moduan erregistratuko dira. Azken urteon antzera, larunbat honetan, uztailearen 16an Usurbilen ospatuko den ibilgailu klasikoaren topaketa antolatzen dabilta egunotan.

Taldea ematen ari den aurrerapausoen ispilu izango da aurtengo edizioa. Topaketa bera indartzeko apustua egin baitute, pizgarri berriak erantsita. Iaz bezala, garai bateko ibilgailuak izango ditugu ikusgai frontoian. Oraingoan, baita moto klasikoak ere Sutegi atarian.

“Lasaientzako rallya”

Usurbilgo ibilgailu klasikoaren topaketa antzeko ekimenetarik bereizteko bidean gainera, ekimen berri bat ere ospatuko dute; auto klasikoekin egin



Motoak Sutegi atarian izango dira ikusgai, eta autoak frontoian.

USURBIL MOTORKLUBA

“Ibilgailu klasiko bat baldin baduzu, gerturatu larunbatean goizeko 09:00etan frontoira”

nahi duten argazki rallya. Antolatzaileek proposaturiko hiru lekuetara joan beharko dute. Guneotako bakoitzean argazki bana atera, lekua, ibilgailua eta

autoko matrikula argi ikusten dela. Guztia egiteko 3 orduko tartea izango dute parte hartzaileek. Gero frontoira itzuli eta antolatzaileei helarazi beharko dizkiete ateratako argazkiak. Ez da zirkuitua azkarren nork egingo duen neurtzeko rallya izango. “Ez da azkar joateko, lasai ibiltzeko, bakoitza bere erritmoan joateko baizik. Lasaientzako rallya da, inolako arriskurik gabekoa, jende askorentzat ezezaguna egun.

Kotxe zaharrari egurra ematea gustatzen ez zaienez. Toki polit askoak ezagutzeko aukera ematen du. Itzultzen direnean kotxearen kilometro kopurua ikusiko dugu. Kilometro gutxi egin duenak irabaziko du”, iragarri dute antolatzaileek.

Saizarren egingo duten bazkariaren ostean, frontoian ospatuko den ekitaldian banatuko duten sarietako bat izango da, baina ez bakarria. Ibilgailu onena edota zaharrena ere sarituko dute, baita eguna antolatzen lagundu dutenek emandako hainbat opari zozketatu ere, parte hartzaileen artean. Argazki rallyan irteteko ibilgailuek gutxienez 25 urte izan beharko dituzte. Ibilgailu klasiko bat baldin baduzu, gerturatu larunbat goizeko 09:00etan frontoira.

Ikusgai izango dugun auto kopuruari dagokionez, ez dakite zehatz zenbat, baina iaz baino gehiago izango omen dira. Prestatuak omen daude halere. Frontoian kabitzen ez badira, “badaezpada baditugu beste aparkaleku batzuk”.

Klub bat sortu dute: Usurbil Motorkluba

UMK sortzeko tramitazioan dira. Prozesu honek “indar pixka bat eman digu, seriotasun bat”. Usurbilgo eta beste zenbait herrietako dozena bat lagunek taldea osatu dute. “Askok ez dute klubaren berri. Jende gehiagok sartu nahi badu, aukera eskaintzeko asmoa dugu”, berri eman dute UMK-tik.

Larunbateko topaketaz gain, uda osterako ibilgailu minien kontzentrazio handi

bat antolatzeko asmotan dira Usurbilen, “Europa mailako handienetakoa”. Lan handia eskatuko die, baina asmo horixe dute eskuartean. Halako ekimenekin, mota honetako ibilgailuak dituztenak elkartu eta bildu nahi dituzte. Motibagarria, etxean gordetzen dituzten altxorrok zaindu eta mantentzen segitzen dutenentzat.

Uztaileak 16, larunbata

■ 09:00-09:30 Argazki rallyan parte hartu nahi dutenen izen

ematea frontoian.

■ 09:30-12:30 Argazki rallyan parte hartuko dutenak frontotik abiatuko dira. Orioko arrautxearen atzealdean, Galarretako frontoian eta Zubietako hipodromoko takillan argazki bana atera beharko dute.

■ 12:30 Argazki rallyan parte hartu dutenen ibilgailuen etorrera frontoira.

■ Hamaiketako eta moto zaharren erakusketa Sutegi atarian. Autoena frontoian.

■ Eguerdian, bazkaria Saiza-



rreren.

■ 16:30-17:00 aldera, Argazki rallyko sari banaketa frontoian eta kotxeak ikusgai berri.

■ Antolatzailea: Usurbil Motorkluba.

Hurbileko txokoak erretratatzeko zaletua

EGUNOTAN, MARIA JESUS ETXEBERRIAREN ARGAZKIAK TOPATUKO DITUZUE ARTZABALEN

Txikitan lehen urratsak eman arren, duela sei bat urte hasi zen buru-belarri egun zinez gustuko duen zaletasuna lantzen. Bere kasa, zozketa batean egokitutako argazki kamera bat hartu eta gustuko dituen inguruotako txokoak erretratzeari ekin zion. Asteotan, bat baino gehiago harritu du Artzabalen bigarren jarri berri duen erakusketak. Ez baitzekiten, Maria Jesus Etxeberria usurbildarra argazkilaria ere badenik. Fin askoa, ikusi bestela, asteotan Gure Pakea Elkarteko jatetxean ikusgai jarri duen bilduma. Bere bidetik, halako afizioaren bat duenak jendearekin partekatzera animatzen du Etxeberriak, lerrootan eskaini digun elkarrizketan.

NOAUA! Zaletasuna nondik datorkizu?

Maria Jesus Etxeberria. 10 urte inguru nituela, kamera bat tokatu zitzaigun. Familian argazkiak ateratzen ibiltzen ginen jolas moduan. Gerora, duela 6 bat urte, kamera bat zegoen etxean eta harekin argazkiak ateratzen hasi nintzen. Eguraldia 24 telebista katean argazkiak bidaltzeko deialdia egin zuten, eta bidaltzen zuten artean, sarien zozketan parte hartu zezaketen. Argazki piloa bidali nuen. Kamera hobea behar nuen. Erosi ordez, ia zozketan tokatzen zi-



Bere kasa, zozketa batean egokitutako argazki kamera bat hartu eta gustuko dituen inguruotako txokoak erretratzeari ekin zion.

MARIA JESUS ETXEBERRIA

“Arratzain bidean, Agerre aldera txoko zoragarri askoak daude. Ibarrola aldera joanda, beste txoko zoragarri bat bidezidor batean. Troiako aldapa jaisten, eskuinera dagoen lur eremua ere oso polita da”

tzaidan itxarotea erabaki nuen. Eta azkenean tokatu.

Zer moduzko tresna duzu?

Olympus bat da, reflex. Oso gustura nago. Orain kamera hobexea goa, zoom handiagoa duena nahi nuke.

Paisaiak erretratatu zalea zara?

Ilunabarra, egunsentia, laino handi eta koloretsuak... Gehiengotan kamera eskutan izaten dut.

Leku zehatzetara zoaz argazki bila?

Leku edo txoko batzuk hautatuak ditut eta hara joaten naiz; bai Usurbilen, Orion, Zarautzen leku batzuk ditut eta argazkiak handik ateratzen ditut, ahal bada beti leku desberdinetatik.

Iaz jarri zenuen ikusgai argazki bilduma bat Artzabalen. Nolan animatu zinen?

Lagunak nituen, eta bertan argazkiak jartzea proposatu zidaten. Haiek animatuta, 12-13

argazki jarri nituen. Batek esan zidan, txiki samarrak zirela eta hurrengo batean handiagoak jartzeko. Orain handiagoak jarri ditut horregatik.

Zer ikus dezakegu asteotan Artzabalen?

Usurbilen ilunabarrean ateratako hiruzpalau argazki, elizako dorrea argitan ilargi txiki batekin ondoan, Usurbilgo herria eguzkia sartzen ari denean, Aginagan ateratako ardi batzuen irudia, Aieteko palazioko zisnea, Orioko hondartzako harkaitzak, Getariako sagua Oriotik aterata ilunabarrean... Salgai daude argazkiak.

Etxetik gertu ditugun txoko asko ezagutzeko aukera eskainiko zizun?

Hala da bai. Hemendik hasi eta Arratzain bidean, Agerre aldera txoko zoragarri askoak daude. Ibarrola aldera joanda, beste txoko zoragarri bat bidezidor batean. Troiako aldapa jaisten, eskuinera dagoen lur eremua ere oso polita da.

Paisaietan zentratu nahi duzu?

Orain pentsatzen nuen, paisaien hainbeste argazki izanda, beste mota bateko irudiak ere interesgarria litzatekeela ateratzea; pertsoneri edo beste leku batzuei, edo argazkiak txuri beltzean, aldatzeko.

“Ez dut ikastaro bakar bat ere egin”

NOAUA! Autodidakta izan zara, ezta?

Maria Jesus Etxeberria. Ez dut ikastaro bakar bat ere egin. Neure kontutik ikasi dut. Argazki kamera nolakoa den aztertu eta harekin neure kabuz aritu izan naiz.

Argazkiak atera bezala erakusten dituzu edo argazkiak tratatu zalea al zara?

Ez dut argazkirik tratatzen. Kamerak eskaintzen dizkidan baliabideekin ateratzen ditut argazkiak. Atera bezala halaxe daude argazkiak. Politeinak iruditu zaizkidanak jarri

ditut ikusgai. Aukeraketa ez da lan erraza izan.

Argazki artxibo handia izango duzu honez gero?

Bai. 3 karpeta ditut, bete beteak. Txukunketa egin behar dut, zein utzi, zein kendu erabakitzeko.

Zure kasuan bezala, herrian izango da ezagutzen ez dugun afizio asko.

Egongo dira eta interesgarria da erakustea. Herritar mordoak egongo da halako gauzak egiten dituenak. Erakustera animatuko nituzke.

Oria kayakean jaisteko eskaintza turistikoa berria Oria

Oria eta errio inguruak biziberritzeko egitasmo bat baino gehiago martxan dugu azken aldian. Uda honetan Oriak dituen altxorrek gertutik, errio barrutik ezagutzeko aukera izango dugu.

Iraganean ontzigintzan Oriak izan zuen aparteko garrantziaz zer ikasia badugula erakutsi zigun, "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" Sutegiko erakusketak joan den maiatzean. Orain arte bezala, ur zikin gehienak erriora isurtzen segitzea saihestu eta Loiolako araztegi bideratuko dituen kolektore berria ere lanean da. Gogoan izan, errio eta inguruak biziberritzeko plana ere lantzen ari dela Usurbilgo Udala; "Errioa bizi!" izeneko. Ekarpenak biltzeko parte hartze prozesua abian du. Hau guztia gutxi ez eta uda betean gauden honetan heldu zaigu, errio biziberritzeari loturiko laugarren proiektua; aisialdia eta turismoa uztartzen dituen.



Uda honetan Oriak dituen altxorrek gertutik, errio barrutik ezagutzeko aukera izango dugu.

BEGI-BISTAN

"Errioaren jaitsiera egiteko moduan izango gara kayakean, hasi Txokoaldetik, Aginaga igaroz, Oriaraino. 8 kilometro luze izango dituen ibilbide hau bi ordu eta erdian egiteko aukera dago"

8 kilometroko ibilbidea

Uda honetan Oriak dituen altxorrek gertutik, errio barrutik ezagutzeko aukera izango dugu. Errioaren jaitsiera egiteko moduan izango gara kayakean, hasi Txokoaldetik, Aginaga igaroz, Oriaraino. 8 kilometro luze izango dituen ibilbide hau 2 ordu eta erdian egiteko aukera dago. Edozein kasutan, bidea nork bere erritora egin ahalko du. Tartean

gelditu, inguratzen gaituen paisaiak gozatu eta bainu freskagarria hartzeko aukera ere izango da, nahi izanez gero. Ekintza berri hau, Orioko Arraunetxeko Arraun Aisialdi Gunetik bideratuko du eremu honetan lan egiten duen Begi-Bistan enpresaren eskutik. Bi eragileekin, Usurbilgo eta Orioko Udalekin eta Behemen-direkin elkarlanean garatu da egitasmoa.

Denok egiteko moduko jarduera

Banaka, binaka nahiz taldeka egin ahalko da jaitsiera. Hori bai, ondo erreparatu, aldameneko orriko ordutegi taulari.

Uztailean

Uztailean astearte eta igandeetan, goiz edo arratsalde partez egin ahalko da jaitsiera.

Abuztuan

Abuztuan, asteazken eta ostiraletan. Goiz edo arratsalde partean baita. Korronteen alde egin nahi



Egitasmo honek errioz gozatu eta ingurumenarekin errespetuzko hartuemana izateko aukera eskaintzen digu.

denez, hauen arabera egokitu Kirol jarduera inklusiboa dituzte jaitsiera ordutegiak. izateko sortua da egitasmo

hau; alegia, denongan eta denok egiteko moduko ekintza izatea nahi dute sustatzaileek. Kayakak oso egonkorak dira, ez dago urperatzeko arriskurik. Ingurumenaz gozatu, eta Oria inguruko balio historiko-kulturala ezagutzeko ekintza aproposa dela azpimarratu dute Usurbilgo Udaletik. Errio ezagutu, errioz gozatu eta ingurumenarekin errespetuzko hartuemana izateko aukera eskaintzen digu egitasmo honek.

Ingurumena zaintzen laguntzeko aukera

Ingurumenaren zaintzaz ari garela, sarritan ikusi dugu errio buelta plastikoz josia; bereziki uholdeak izan ostean, begi bistan utzi digu zenbat plastiko isurtzen diren oraindik ibaietara. Uda honetan jaitsiera egitera goazenean, ekimen sinboliko batean parte hartzea animatzen gaituzte. Norberak hiru hondakin plastiko biltzera; ingurumena zaintzeko egin dezakegun ekarpen praktikoa zalantza izpirik gabe.



Ordaindutako zerbitzuaren baitan sartzen da materialaren alokairua, Txokoaldera garraioa eta Txokoaldetik Oriorako jaitsiera, Arraunetxeko aldagelen erabileraz gain.

Orioko Arraunetxera jo

Jaitsiera egitera animatzen denarentzat; materiala Orioko Arraunetxean bertan alokatu ahalko da. Bertan jasoko ditu argibide gehiago. Ordaindu-

tako zerbitzuaren baitan sartzen da materialaren alokairua, Txokoaldera garraioa, eta

Txokoaldetik Oriorako jaitsiera, Arraunetxeko aldagelen erabileraz gain.

Oria jaitsieren ordutegiak

Uztaila

- Uztailak 17: 16:30.
- Uztailak 19: 16:30.
- Uztailak 24: 10:00.
- Uztailak 26: 10:00.
- Uztailak 31: 16:30.

Abuztua

- Abuztuak 3: 16:30.
- Abuztuak 10: 10:30.
- Abuztuak 12: 10:30.
- Abuztuak 17: 16:30.
- Abuztuak 24: 10:30.
- Abuztuak 26: 10:30.
- Abuztuak 31: 16:30.

Informazio gehiago:

info@begi.bistan.com

657 794 677

begi-bistan.com

SANTIXABEL JAIK 2016

WWW.NOAUA.EUS WEB ORRIALDEAN, JAIETAKO BIDEO ETA ARGAZKI UGARI IPINI DITUGU IKUSGAI.
ESKUKO TELEFONOAREN BITARTEZ ERE IKUS DITZAKEZU, KODE HAU BALIATUZ



BIDEOAK





ARGAZKIAK



noaua! euskararen aterpe

orain bazkide egiten bazara, OPari eder bat jasoko duzu eta zozketa ezberdinetan parte hartzeko aukera izango duzu
(40€ urtean soilik) 943 360 321 / elkarte@noaua.eus



Klik! batean

Gerizpean

Ordesa. El Retiro. Areatza. Yellowstone. Boulevard zumardia. Parc Güell. Hyde Park... Zoazen tokira zoazela, bero sapak gerizpean harrapa zaitzala. Nik, bien bitartean, Urdaiagan itxarongo zaitut.

Argazkia: Ion Markel



Santixabeletako 40. Bertsopaper lehiaketako lan sarituak

Bost herritar aurkeztu dira aurtengo edizioa: Arantzazu Aranburu, Beñat Larrañaga, Imanol Zarautz, Iñaki Agirresarobe eta Jon Aizpurua. Lanotatik hiru hautatu behar zituen epaimahaiak, eta lehia estua izan zela aitortu ziguten.

Jaien atarian eman zuten erabakiaren berri. Iaz bezala, Imanol Zarautzek jantzi du 2016ko txapela. Jon Aizpurua eta Iñaki Agirresarobe izan ziren saritu dituzten beste bi lagunak. Zorionak!

Txapelketa sustatzen jarraitu asmo du Bota Punttubak. Datoren urteko edizioa indarberritzeko asmotan dira.



Beste behin ere, Imanol Zarautzentzat izan da txapela. "Makatzetik sagarrondora" bertso-sortarekin gailendu da. Kintin Seguiolaren eskutik jaso zuen saria.



Jon Aizpurua bigarren geratu zen. Bere aita igo zen oholtza gainera, saria hartzera.



Iñaki Agirresaroberen bertsoentzat izan zen lehiaketako hirugarren saria.

1. saria: "Makatzetik sagarrondora"

Egilea: Imanol Zarautz

1-Ibar luze ta haran sakonak
zein bizitoki lasaia
kimuak gora eguzki bila
lurrean bera sustraia
baina tamalez, bizitza, ez da
beti suertatzen alaia!
Igaro behar, behin gizakiak
ipinitako uztaia
bi urterekin bota zidaten
bizi osoko epaia.

2-Gerri-gerrian sartu zidaten
dizdirakiko labana
bi arrakala luze ta sakon
egin arte ze afana.
Sufritu arren, sendatu nintzen
neure izerdiz ze lana
bi beso berri ernetu zaizkit
alde bakoitzera bana
Bihurtu naute hiltzear zeuden
bi kimu txikiren ama.

3-Hiru lau urtez bizitu nintzen
neure zaurien penetan
sufritu nuen uda, udazken
udaberri, neguetan
loretuz noa edertuz noa
badet indarra zainetan
ta oroitzen naiz lertxun itsusi
txiki haren ipuinetan
lehen arantzak nituen eta
orain bizi naiz loretan.

4-Eguzki epel ta euri langar
hain da giro aproposa
soineko polit bat osatu det
lorenz, txuri ta arrosa
hain sentitzen naiz ederra eta
hain sentitzen naiz panpoxa
haran ilunei, ematen diet
kolorea, bizi-poza!
Erle txikiek aurtengo hontan
bapo behar dute goza!

5-Erle pixkorrek behin sarturikan
lore erdian gezia
bakarrik ezin det ta norbaitek
ekarri behar hazia
hola naturak urtero zintzo
bete ohi du gutizia
osatuko da uzta ederra
indarrez irabazia
hau da landare izatetikan
zuhaitzerako jausia.

6-Aleak doaz itxura hartzen
kolore eta dizdira
dotoreenak joango dira
gizakiaren saskira
itxusienak hegaka doaz
iskiñoxoan kabira
eta lurrera jausten direnak
naturarentzako dira
hamaika lapur arrimatzen da
nere gerizpe azpira.

7-Biluztu naute sagar lapurrek
euren modu latzenean
tamalez euren beharra badet
ugalketaren uean
eguzki epel eta goxuan
ordua mozten denean
hostoak orbel bihurtu eta
haizek daramatzanean
bat ohartzen da sartu garela
udazkenan atzenean.

8-Ta orain datoz inortxok maitte
ez ditun egun arrotzak
gau luze ilun, bakarti, gogor
ta eguzki ordu motzak
jasango ditut eurite, txingor
ta jela-aldi zorrotzak!
Berriz maiatzen pizte ezkeroz
itzalitako bihotzak...
Holakoxiak izaten dira
sagarrondoen morrontzak!

2. saria: “Hiyab”

Egilea: Jon Aizpurua

1-Lehen eguna eta azkena
Iritsi ikasgelara
Atean ttak-ttak, bi kolpetxo ta
Maixtra hor datorkit ara!
Sartu orduko niganaturik
Ditut mila begirada
Izena ere esan behar ta
Ai ene! Zenbat algara!
Berritasuna onartzekoan
Hain zaharkituak al gara?

3-Lehen unetik inguru dena
Aldrebestearen zama
Zuzendaria atea joka
Ta pasilora narama
Aitaren berri ba ote dudan
Ta zer moduz dugun ama
Elkarrizketa zuriagia
Gero irriparre bana
Kotoi artean gordeta dakar
zinez esan nahi didana.

5-Orain artean paseak nago
Hainbeste gose ta gerra
Gero ihesa tokatu eta
Benetan ez da ederra
Mugarik muga, kilometroak
Itsaso ta mendizerra
Ongi etorri esaten zuten
Ta ez gaitezen haserra
Mezua Eder izanagatik
Mamian dago okerra.

7-Baina akaso arazoa da
Estalita nihoala,
Barne arauk muga dutela
Errespeta ditzadala.
Klasekideak begiratzeko
Egin dezagun eskala
Zenbat bixera, hamaika zapi
Ta dena horren “normala”
Nik zerbait oker egina badut
Jainkoak barka nazala.

2-“Eseri zaitez, ene txikia,
hor, Maialenen alboan”
han hurbildu naiz, hari begira
lotsaren korapiloan
jarri orduko urrutiratu
ta utzi naute zokoan
nerabe batek arma zorrotzak
gordetzen ditu golkoan
bartzertzen naute urruntasunak
suntsi nazakelakoan.

4-“Zorionean Amira ez da
hau maite duzun Siria
eta Hiyab janzea hemen
da zama handiegia.
Aurreiritzi gehiegi dago,
Litzake erokeria,
Sinesmen denak onartu arren
Ezkutatu alegia.
Herri libre ta laiko batean
Bizitzearen egia”.

6-Erljioa arazoa da
sarri Europa zaharrean
Elkar banatzen gaituelako
Elkar batu beharrean
Gelako horman, gurutze baten
Kristo da arbel parean
Amabirjinak eta Kristoak
Zuen bion bularrean
Neurrik berdinak hartzen al dira
beste fedeen aurrean?

8-Beraz zapiak arazoak ta
Saminak sortu ditzazke
Eta onena ileak libre
Uztea izan liteke
Zail egiten zait hau ulertzea
Benetan al da hainbeste?
Zapiak kentzen hasi ezker
Ordenaz hasi gintezke
Begietatik kendu ezker
Libreago giñateke.

3. saria: “Amaren itzala”

Egilea: Iñaki Agirresarobe

1-Hazi ninduen altzoan,
xamurki era gozoan,
ferekatuaz azal leuna
nire haurtzaroan,
beso arteko lazoan,
oso era airosoan,
oroimen hauek gordeko ditut
bizitza osoan.

3-Etxeko berotasuna
hori baita osasuna,
aholkuekin hornitu baitu
buruko garuna,
bizitzarako zentzuna,
guztiok behar duguna,
amari esker norabidea
izan da laguna.

5-Nire bidegurutzean,
zailtasunezko trantzean,
amaren itzal saihestezina
izan dut atzean,
eltzetik babak heltzean
ta gogotik berotzean,
konturatu naiz sarraila dela
nire bihotzean.

7-Aberatsa du hizkuntza,
hari luzean joshkuntza,
harririk harri, bazterrik bazter
hortik doa huntza,
euskararen eraikuntza,
sendotu zaigu gorputza,
nire mingainak berari esker
halako sorkuntza.

2-Nire aurreneko hatsa,
kenduz barneko arantza,
negar malkoak eta marruak
izerdizko latsa,
amaren beso ta hatza
agertu zen esperantza,
jaio orduko gertatu baitzait
niri iparrorratza.

4-Jasoa dut umorea,
benetan da ohorea,
eredu hori gertatu baita
nire balorea,
barrearen kolorea,
bizitzaren ondarea,
amari esker desegin baita
tristuran oreka.

6-Eguneroko lanean,
ohitura etengabea,
ezagutu dut haurrak haziaz
gogoz jardunean,
eskuzabal emanean,
ta ezer ez ordainea,
aizolana zer den ikasi dut
bere aldamenean.

8-Amaren pazientzia,
berak duen garrantzia,
nire barnean ezin dudana
inoiz ahantzia,
nortasunaren jantzia,
bizitzari erantsia,
nire soinean daramat eta
ezin erantzia.

Ostegun gau musikatuak, Laboaren Uztaila amaitu arte

U surbilgo Gaztetxeak martxan du berriz ere, Laboaren Uztaila musika zikloa. Bakarlarien saioez gozatzeko aukera izango dugu hilabetea amaitu arteko ostegun iluntzeetan, nola ez, Mikel Laboa plazan. Uztaillaren 7an izan zen estreinako emanaldia; Ortomotor, Alitruta bakarlariren proiektu berria entzuteko parada izan zuten Sutegi ingurura gerturatu zirenek. Datozen ostegunetan zer izango dugun? Honatx antolatzaileek helarazi duten egitaraua. Has-teko, Pelax eta Physis vs Nomosen kontzertua.

Uztailak 14, osteguna

■ 20:30 Afari beganoa borondatearen truke.

■ 22:00 Pelax eta Physis vs Nomos, “bi bakarleri elkarrizketa musikatuan”. “Unai Pelayo donostiarra da Pelax. 2013ko azaroan hasi zen lehen bakar-kako emanaldiak eskaintzen, bere ahots gordinaz eta gitarra elektriko zikin batez baliaturik. Hilabete batzuk aurrerago, 2014ko martxoan, bere lehen EPA kaleratu zuen, Pillotegiko saioak, lokalean perkusionista baten laguntzarekin zuzenean grabaturikoa. Rockaren maitalea izanik, abestiak atontzeko banda bat osatu zuen 2014ko apirilean. Geroztik bakarka zein taldearekin aritzen da, eta 40 kontzertutik gora eskaini ditu. Beñat Antxustegi (Donostia) Xikinkei eta Txemak taldeetan aritutakoa besteak beste 2010ean hasi zen bakarkako abestiak sortzen physis versus nomos izenarekin. Bi diskoren ondoren Saudade izango den hirugarrena bukatuko du orain”.

Uztailak 21, osteguna


■ 22:00 Joseba B. Lenoir bere bakarkako lanarekin. “Jose-



Pelax (argazkia: arrosasarea.eus)



Joseba B Lenoir



Paxkal Irigoyen

Kontzertu guztiak Mikel Laboa plazan egingo dira, borondatearen truke.

LABOAREN UZTAILA

“Bakarlarien saioez gozatzeko aukera izango dugu ostegun iluntzeetan Mikel Laboa plazan: hilaren 14an, Pelax eta Physis vs Normos, 21ean Joseba B. Lenoir eta 28an Paxkal Irigoyen eta Larrazken orkestra”

ba Baleztena musikaria dago egitasmu honen atzean. Bera herriko mutila “Ameba. Sixty Sexers, Sumision City Blues. Johnny & Joseph, Oskar Benas y los Vampiros del Ritmo, etab” proiektuetan ibilia dugu. Willis

Drummond, The Capaces, Petti etab.-eko zerrenda luzeko kolaborazioekin batera. Rock and Roll garratzenetik abiatuta, beste hainbat soinu eta estilo garatu ditu. Bere bakarkako ibilbidean, berriz, esperimentatuz, loop eta pedalek eskaintzen duten baliabide iturri amaigabea murgildu da. Betiere gitarra bidelagun duelarik, perkusioak, bateria, mandolina, banjoa eta definitu ezin diren tresna ugari gehitu dizkio. Informazio gehiago: josebabloir.bandcamp.com

Uztailak 28, osteguna

■ 22:00 Paxkal Irigoyen eta Larrazken Orkestra. “Duda-

rik gabe 2014an euskal eszenan entzun dugun proiekturik ederrenetarikoa da. Zezenaren Taldea edo Bilau taldearekin musika estilo ugari jotzen ditu. Oraingoan, Paxkalek proiektu pertsonalagoa eskaintzen du, post rock eta folk orkestralaren mugetan. ‘Larrazken Orkestra’-k oholtza gainean lagundurik, biolontxelo, biolin, gitarra elektriko, esku soinu eta ahotsak elkarturik, zuzeneko tirabiratsu eta hunkigarria ematen du”.

Oharrak: kontzertu guztiak ostegun gauetako 22:00etan Mikel Laboa plazan, borondatearen truke.

Oporren aurreko azken NOAUA!, astebete barru

Uda aurreko azken aurreko aste-karia duzue eskuartean. Azkena, astebete barru, uztailaren 22an argitaratuko dugu. Ordurako zorion agur edo oharrik baldin baduzue, uztailaren 18a izango duzue bulegora ekarri edo erredakzioa@noaua.eus helbidera bidaltzeko azken eguna. Uda osteko lehen aldizkaria, irailaren 9an argitaratuko dugu.

Beste NOAUA!kide bat, talasoterapiara

Oraingoan Izaro Matxain Odriozolari egokitu zaio 2 lagunentzako talasoterapia zirkuitua. Halako sari bat tokatzeko zer egin duen? NOAUA!ko kide izatea. Bazkideen txokoan egiten ditugun zozketetako onuradun berria dugu. Iruditan, Izaroren senideek saria jaso zuten unea. Ez da azkena izango, ostegun honetan, uztailaren 14an, bat ez, 3 sari zozketatuko ditugu eta NOAUA!kideon artean; Orioko Aisian 2 lagunentzako gau bat pentsio erdian eta zirkuitu termala; 2 lagunentzako afaria Atxega Jauregian; eta azkenik, 2 lagunentzako bazkaria Olarrondo jate-txean. Zorte on!

Aste honetan hasiko gara bazkidetza kobratzen

Gutun edo emailaz jakinaraziko dizuegun arren, ostiral honetan NOAUA!ko bazkidetza kobratzen hasiko gara, zuetako bakoitzak emana duzuen kontu zenbakitik. Eskuz ordaintzen duzuenok, dirua NOAUA!ko egoitzara ekar dezakezue edo bestela, NOAUA! K.E.-k Rural Kutxan duen kontu zenbaki honetan sartu: 3008 0259 11 3086496928.



Izaro Matxaini egokitu zaio talasoterapiara joateko oparia. Bere etxeokak etorri ziren saria hartzera.

UZTAILAK 22, AZKEN NOAUA!

“Zorion agur edo oharrik baldin baduzue, uztailaren 18a izango duzue bulegora ekarri edo erredakzioa@noaua.eus helbidera bidaltzeko azken eguna. Uda ondorengo lehen aldizkaria, irailaren 9an argitaratuko dugu”

Hobaria Errenta Aitorpenean

Bazkidetzaren prezioa zertxobait igo dugu aurten; 40 eurotara hain zuzen. Era berean, gogoan izan, NOAUA!ko bazkidetzari esker, Errenta Aitorpenean hobaria aplikatuko zaizuela. Horretarako ordea, gogoan izan, zuen izen abizenez gain, NAN zenbaki osoa behar dugu letra eta guzti, bazkidetza zuen aitorpenean kon-tuan hartua izan dadin.

Irailaren 25ean

Bizipoza Jaia

Elkartasun jaialdi handi baten erdigunea izango da Usurbil, irailaren 25ean. Irrien Lagunak Klubetik sortutako Irrien Lagunak Gizartegintza Elkarteak bideraturiko ekimena ospatuko da. “Gizartegintza elkarte behar bereziko haurren bizi-baldintzak hobetzeko lan egiten duten hainbat kolektibok ILK-ri zuzenduriko eskaintza eta eskaerei proiektu sendo batekin eta egitura egonkorrekin erantzuteko ahalegina da, haurrek eta familiek elkar lagundu eta auzolan sare eus-kaldun eta alaia osatu dezaten”.

Egun osoko elkartasun festa izango da; joko, tailer, Irrien Lagunen edota Pirritx, Porrotx eta Marimototsen bisitak aurreikusi dira.

Jaialdia behar bezala ospatzeko laguntzaileak beharko dituzte elkar-teen informazio postuak, itxitura eta hesiak eta ekimen ezberdinetako azpiegitura muntatu eta desmuntatzeko, aparkalekuak eta herriko sarrerak zaintzeko, txartelen salmentarako, begiraleak antolatuko diren tailerretarako...

Artzeren unibertsoa, Washingtonen

Egunotan Washingtonen (AEB) ospatzen ari diren Smithsonian Folklife jaialdian, Euskal Herria dugu herri gonbidatua. Besteak beste, bertako kultura ezagutzen ari dira Ameriketako Estatu Batuetako hiriburu honetan.

Usurbildarrentzat tarterik ere bada bertan; uztailaren 3ra arte Potxoenean ikusgai izan genuen, “Ikimilikiliklik, JA Artzeren unibertsoa” erakusketarekin jaialdi honen baitan ikusgai izan baita, Toolbox Art Galleryn hain zuzen.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Sarai Lizaso eta Alex Udabe, sailkapen buruan

Emakumezkoen Ligan asteburuan ospatu diren estropadak erabakigarriak izan dira; sailkapen probak baitziren. 8 talde ziren lehian, eta Euskotren Ligan parte hartzeko 4 postu baino ez zeuden. Tartean bi usurbildar. Batetik iazko txapeldunak, Sarai Lizaso eta San Juan taldea. Postua ziurtatua zuten liga honetan.

Halere EuskoTren ligarako berdin berdin sailkatuko ziren, asteburuko emaitzak kontutan hartzen baditugu behintzat. Larunbateko IV. Orioko Kanpina Bandera eta igandeko Donostiako V. Eusko Label Bandera



Sarai Lizaso, argazkian iazko Kontxako Bandera irabazi berrian.

irabazi baitzituzten. Gutxigatik baina txapelketatik at geratu dira Nagore Arruti eta Geta-

ria-Zarautz taldea, bosgarren postuan sailkatu baitziren Orion larunbatean jokaturiko

banderan, eta seigarren, igandeko Donostiako jardunaldian.

Alex Udabe, Hondarribian

Emakumezkoetan sailkapen buruan usurbildar bat dugu San Juan Taldean. Eta gizonetzkoetan Alex Udabe lehen postuan baita, Hondarribia taldearekin. Laugarren garaipena erdietsi zuten igandean Donostian; V. Eusko Label Bandera. Gogoan izan bestalde, Iñaki Errastik arraun munduan segitzen duela, baina ez arraunlari gisa. Denboraldi honetan prestatzaile gisa dabil lanean, Orioko bigarren senior mutilen taldean, Joxean Olaskoaga "Aizperro"rekin batera.

Irailean Ordesa aldera joango dira Andatzakoak

Irailaren 9-10-11n, Andatzakoak Ordesara joango dira "Monte Perdido eta Tozal de Mallo egiteko asmoz. Gorizeko aterpean eta Torlako Refugio Lucien Briet-en ostatua hartuko dugu".

Irailak 9

6:00etan Usurbildik abiatuko gara autobusez. Bidean geldialditxo egin ondoren, 10:00etan Torlara iritsiko gara, autobusez Ordesara igotzeko. Ibilbideari hasierara emango diogu Pradera de Ordesa-tik (1.318 mt), eta Senda de los Cazadores, Mirador de Carcillarruego, Faja de Pelai eta Soasoko zirkoa (Zaldiaren izatza) pasa ondoren, Gorizeko aterpera (2.200) iritsiko gara.



Aurreko asteburuan Aizkorri aldean ibili ziren. "24 lagunek egin genuen ibilaldia Otzaurtetik Arantzazura, Urbiako giro paregabeaz gozatuz".

Irailak 10

Gorizeko aterpetik abiatuta, laku izoztura eta Monte Perdido (3.355 m) igoko gara. Jeitsieran, Gorizeko aterpea, Soasoko zirkoa, Soasoko eskailerak eta ur jauziak ikusiko ditugu. Ordesako belardian autobusa hartu eta Torlara

jaitsiko gara Lucien Briet ostatura.

Irailak 11

Ordesako autobusean Praderara (1.318 m) igoko gara, Ibilbideari hasiera emateko. Cotatueroko zirkotik faja Racunera bideratuko gara, eta

Salaroseko iltzetatik Tozal de Mallorca (2.254 m) igoko gara. Ondoren, Carriatetik beherantz hartu eta Torlara autobusez jaitsi ondoren gure autobusean Usurbilgo bidea hartuko dugu".

Eguraldi onarekin

Ibilbide hau egiteko eguraldia lagun izan behar dutela ohar-tarazi dute Andatzakoak, "eta Perdido igoera elurrik gabe. Gorizeko aterpetik jaso dugun informazioaren arabera, elurrik ez da izaten Perdido urte garai horretan".

Informazio gehiago andatza.com web orrian topatuko duzue. Dena den, plazak beteta daudela jakinarazi digute Andatza Mendizaleen Kirol Klubetik.

ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL

Usurbildar nabarmenduak, Gipuzkoako Eskubaloï Federazioaren sariketan



Nagusien artean, jokalaria onena Esther Arrojeria izan da eta jubenetan Estitxu Berasategi. Taldeka, senior nesken taldeak plaka bat jaso zuen maila igoeragatik.

2015-16 denboraldiko sariak banatu zituen Gipuzkoako Eskubaloï Federazioak uztailaren 7an Donostiako Anoetako Kirok Etxean. Iaz bezala, usurbilda-

rrak nabarmendu dituzte sari-tuen artean:

- Jokalari nagusia: Bera Bera taldeko kide Esther Arrojeria.
- Jokalari jubenila: Usurbil K.E.-ko kide Estitxu Berasa-

tegi.

- Senior nesken taldea: maila igoeragatik, plaka bat jaso zuen entrenatzaileak, taldearen izenean.

Zorionak!

Txusta, Barakaldora

Jon Irazustabarrena Lizarralde badoa Iruneko futbol taldetik. Barakaldo taldean jokatu du hurrengo bi denboraldietan; 2016-17 eta 2017-18 kirol urteetan. Bizkaiko klubak atezain usurbildarra kontratazeko adostasun batera heldu direla berri eman du, futbol munduan orain arte jorratu duen ibilbide

oparua gogoraztearekin batera. Realaren harrobian edota Beasainen jokatu du urteotan "Txustak". Halere, ziurrenik, une gogoangarrienak Eibarren bizi izango zituen. Taldean zela igo baitziren Lehen Mailan lehiatzera. Azken urtea, Irunen eman du. Eta orain, aipatu moduan, Barakaldok fitxatu du.



Argazkia, Eibarren aritu zen garaikoa.

Judo taldekoak fin aritu dira Europako txapelketetan

Punta puntako judokak ditugu herrian. Igaro berri den hilabetean bi kide lehiatu dira Europa mailako txapelketetan. Madrilgo European Open txapelketan parte hartu zuen Aiora Arrillagak, 48 kiloz azpikoen mailan. Ion Martinek, Punta Umbrian ospaturiko Europar Jokoetan 73 kiloz azpikoen mailan brontzezko domina irabazi zuen. Europako beteren txapelketan ere parte hartu zuen ekainaren 25ean, Kroaziako Porec herrian.



Ion Martinek brontzezko domina irabazi du -73 kg mailan.

Gaztelekua, datozen ekintzak

Uztailak 14, osteguna

11:00 Donostiako hondartzara, Kayak DBH2koekin. Itzulera: 18:15tan.

Uztailak 15, ostirala

14:45 Donostiako Irlara irteera DBH1ekoekin. Itzulera: 20:15ean.

ETXETRESNEN KONPONKETAK
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER
Usurbil

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
URDAINTZI@EUSKALNET.NET
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m². Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Prezio berria: 138.000 euro. Ramón 615149900

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, salaio, sukalde... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trasteleku. 629631838

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m². Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Prezioa 150.000 euro. Ramón 615149900.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukalde jantokia aparte duela. 605 707 642.

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosi nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukalde. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekileku, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Alokairuan

Pisu bat alokairuan Atxegalden. 3 logela, egongela, 2 komun, sukalde eta terraza. 637 309 209.

Txaramunto kalean etxebizitza alokatzen da. Hiru gela eta bi komun dituena. 100 m². Trasteroa eta garajea aukeran. Abala eskatuko da. 649 26 17 04.

Etxebizitza Santu Enea 21ean. 69 m². Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Prezioa 550 euro. Ramón 615149900.

Etxe bat Etxealdian. 3 logela, sukalde-jangela, 2 balkoi eta dena kanpora. 626 867 493.

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Garaje itxia salgai, 38 m karratuko, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitara salgai. Diesel. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Garaje itxia alokatzen dut, 20 metro koadro, Kale Nagusia 22-an. 618860270

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxerentzat. 60.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekaxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motoarra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Pertsona helduak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, asteburuetan eta jai egunetan

eta ospitalean gauak pasatzeko. 632 754 243. Piedad.

Neska bat lan bila dabil, garbiketa lanetan eta pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala edo orduka. 646 062 692.

Psikoterapia humanistako ikasketak dituen pertsona bat eskaintzen da, pertsona helduei laguntzeko. Prezioa hitz egin daiteke. Tel 649 589 213. Peio.

Zerbitzari euskaldun bat behar da esperientziarekin. Interesatuok idatzi email bat: atxega@atxegajuregia.com

Estetizista bat behar da ilea-paindegi batean lan egiteko. 943361971

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Emakume bat behar da astean hiruro egunetan: bazkaria eta garbitasuna egiteko. Tel. 609 403 081.

Zubietako taberna berri batean lan egiteko 3 pertsona behar dira. Uztaila eta abuzturako. Esperientzia baloratuko da. CV hona bidali: laneskaintza2016@gmail.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaiari baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre

edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile titularekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketan. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrek zain-tzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.



Zorionak Noa!

Uztailaren 15ean 2 urte beteko dituzu! Muxu handi bat, ondo ospatuko dugu!



Zorionak Nahiane eta Enaitz!!

9 eta 4 urte betetzen dituzue uztailak 8 eta 12an. Muxu potolo bana familiaren partez.

OHARRA: Uztailaren 22an aterako dugu ikasturteko azken NOAUA! astekaria. Gero oporrak hartuko ditugu eta ez da aldizkari irizango irailaren 9ra arte. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: uztailak 18. erredakzioa@noaua.eus

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketara lanak egiten, jabetxeren batean harraskako garbiketarako egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan ari zeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketara. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituladuna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan

edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila nabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Papelekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketara, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona helduak edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketara egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketara... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulatuarekin 68826968.

BESTELAKOAK

Egoera onean dagoen flauta trabesera bat erosiko nuke, edo

urtebetez alokatu. 645 737 925.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldeira Oiardo Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostikat elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polarrak bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Quechua markako eta kolore arrosako anorak bat galdu da. 678 084 020.

Okly markako eguzkitako be-taurreko graduatu eta beltzak galdu ditut, Aginagako Mapil-en dagoen bankuaren ondoan. Aurkitu badituzu deitu 649 403 890

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztailearen 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko

aukera. 660 057 667

Gazteentzako logela bat, berria eta argia. Umeentzat "Maxicosi-a" handia 9 - 15 kilo, jolastoki bat, hamaka bat eta bidaiatzeko sehaska bat. 673 256 566.

NOAUA!ren aurrean domina bat aurkitu da. Galdu baduzu NOAUA!tik pasa. Dominan Diputacion de Ciudad Real jartzen du.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Artzai txakur bat oparitu nuke. Baserri edo pabeloia zaintzeko ona da. Bost urte ditu eta beltza da. Txerto eta mikro-txipa jarrita ditu. 943 365 228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean mobil home bat saltzen da. 656 791 676.

Kalexarren, azpiko kaleko garraxietan, katu txuri, marroia eta urre kolorekoa desagertu zaigu. 2015eko irailean jaioa. Norbait aurkitzen badu deitu: 943 371 220

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kilo. 657 714 355

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Garbigunear. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarta Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Sabadell/Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskalategia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonika.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 14 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 15 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 17 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 18 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 19 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Uztailak 14 - uztailak 24

Osteguna 21 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 22 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 23 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 24 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ URRUTIA YURREBASO, MAITANE Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani 943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda uztaila

15 ostirala

- Erraustegia Erabakia taldeak deituriko batzarra. 18:30ean Potxoenean.
- Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa Artzabalen.

16 larunbata

- Ibilgailu klasikoaren topaketa 09:30ean irteera frontoitik. 12:30ean Ibilgailu klasi-koak frontoira helduko dira.
- Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa Artzabalen.

17 igandea

- Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa Artzabalen.

Jaien balorazioa egiteko garaia da



Potxoenean egingo da bilera, datorren astelehenean arratsaldeko 18:00etan. Argazkian, gaupaseroak

Ospatu berri ditugun jaien balantzea egiteko bilera deitu du Jai Batzordeak, datorren astelehenerako, uztailearen 18rako, 18:00etan Potxoenean.

“Santixabel jaiak bukatu dira, eta garrantzitsua iruditzen zaigu jaien balorazioa egitea, ondo egindakoak mantendu eta hobetu beharrekoak bideratzeko”, adierazi dute Jai Batzordetik bilerara joateko gonbita luzatzearekin batera. Proposamenotatik abiatuko dira hain zuzen, 2017ko jaien antolaketa lanak. Hitzorduari begirako ohar bat; “egokia litzateke, egun horretarako, ahal balitz, diru-kontuak zuritzeko agiriak ekartzea”.

Zubietako jaiak, begibistan

Usurbilgo jaien ajea pasako zitzaizue-

lakoan, hartu eskutan zuen agenda eta apuntatu. Inguruotan hasi besterik ez baitira egin uda parteko ospakizunak. Jaien errondan hurrengoak, Zubietakoak izango ditugu.

Uztailearen 23an, larunbat eguerdian murgilduko dira jai giroan, antolatua duten Mozorro Egunarekin. Kontzertuak, oilasko biltzaileak, Haur eta Jubilatuen Eguneko ekitaldiak eta Gaupasa Egun arrakastatsua programatu dituzte uztailearen 31ra arte.

Jaien egutegia

- Zubietako jaiak: uztailearen 23, 24, 25, 27, 29, 30, 31.
- Urdaigako jaiak: abuztuak 3, 5, 6.
- Atxegaldeko jaiak: abuztuak 26, 27, 28.
- Santueneko jaiak: irailak 16,17 eta 18.
- Aginagako jaiak: urrian.

Datozenak

Zubietako jaien hasiera

Uztailak 23, larunbata:

Mozorro Eguna

- 12:00 Jaien hasiera, txupinazo eta Zubietarron III. Argazki herriko erraldoiarekin. Ez ahaztu zure mozorroa! Segidan, Txosnen irekiera eta “fotokola”.
- 14:00 Herri bazkaria, Zubietako Pilota Elkartearen eskutik. Bazkalostean Bingoherrikoia, Erraustegiaren Aurkako Zubietako Taldearen eskutik.
- 18:00 Elektropatxaranga-ren laguntzarekin poteo herrikoia.
- 22:00 Dj Aros-ekin dantzaldia.
- 00:00 Tajon Prieto Y Los Cuajolotes. Jarraian, Dj Aros.

Uztailak 24, igandea:

Jubilatuen Eguna

- 9:30 Meza.
- 11:30 Herriko gaztetxoen Joko Garbi erakustaldia Errebote Plazan.
- 12:30 Emakumeen pala partida Errebote Plazan: San Sebastian - Arrillaga Otaegi - Erasun.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria, Barazar Jatetxean.
- 17:30 “Hoi denk hoi, habilitadiala!”, herritarron talentuen erakustaldia. Ondoren, Buruhandiak.
- 19:30 Sardin eta piper jatea.
- 23:30 Bi Bala taldearen kontzertua. Jarraian, Laiotzekin erromeria.

 **URPI** Leihoak
urpileihoak@gmail.com

☎ 943 50 80 95 • 688 81 93 33
nagusia 10 (atzek) USURBIL

 **Inaki**
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ELORZA

OBRAKETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

BIDAIA TALDEAN

Irteera Lasarte-Oriatik

ARGENTINA



iparretik hegora

·AURREIKUSITAKO IRTEERA 2017/01/30·



Erreserbak eta informazioa bulegoan



NOAO BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etxarribeñ, 10
20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa
T. 943 373 613
info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Baxoalde 4 behea, ORIO

ATXEGA JAUREGIA



ASTEAN ZEHAR GAUETAN IREKITZEN DUGU! (ASTELEHENAK EZIK)


·Eguneko menua: Kafetegian 13,30€ (bez barne)
Jangelan: 17,50€ (BEZ barne) astelehenetik ostiralera
eguerdian eta GAUEAN !!!

·Eguneko platera

·Asteburuko menua 31€ (BEZ barne), Karta
Ospakizunak, ezkontzak...leku aproposa eta aukera zabala



Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150



Zonalde berria!
giro onean!

Olarrondo jatetxea

• EGUERDIRO:
EGUNEKO MENUA
12€ (Kafearekin)

• MENU BEREZI
BERRIAK
35€tanik aurrera



USURBIL 943 360 376
626 686 036 www.olarrondojatetxea.com

BAZKIDEEN TXOKOA



NOAUAKO bazkide guztien artean zozketatuko ditugu sari zoragarri hauek. Uztailaren 14an




DEBAKO AISIAN 2 LAGUNENTZAKO GAU BAT
+ zirkuitu termala+ Pentsio ERDIA



2 LAGUNENTZAKO afaria
Atxega Jauregian



2 LAGUNENTZAKO BAZKARIA
OLARRONDO JATETXEAN



noaua! euskararen aterpe

Orain bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera izango duzu

(36€ urtean soilik) 943 360 321 / elkartea@noaua.eus